

## LAN ESKAINTZA



### DESKRIBAPENA

---

- **ARLOA:** Lankidetzeta-euskalgintza proiektuen kudeatzailea / Administratiboa / Bulegaria
- **FUNTZIOAK:**
  - Elkartearen kudeaketa ekonomikoa, proiektuetako diru laguntzen kudeaketa eta administrazio orokorreko lanak egiteak izango du lehentasuna.
  - Batzordeetan eta koordinazio bileretan parte hartzea, bai eta aktak hartzea ere.
  - Garabideren egitekoan (munduko hizkuntzak biziberritzeko prozesuetan egiten duen zubigintza lanean) sortzen diren beste zeregin askotarikoak, batez ere bertako lan-talde teknikoaren baitan hizkuntza-kooperazioko proiektuen erredakzioa, gestioa eta zuriketa.

### BALORATUKO DIRENAK

---

- Lizenziatura ikasketak edo parekideak, bereziki baloratuko da administrazio edo kudeaketa arlokoak izatea.
- Elkarteen kudeaketa ekonomikoa prestakuntza edo/eta lan esperientzia izatea.
- Garabideren lan eremuarekiko gertutasuna (hizkuntzen biziberritzea, nazioarteko lankidetzeta, euskalgintza).
- Euskalgintza eta lankidetzeta arloen ezagutza sakona.
- Lankidetzeta-proiektuen idatzizko formulaziorako trebezia.
- Komunikazio eta harremanetarako jarioa.
- Euskaraz oso ondo hitz egitea eta idaztea.
- Euskaraz gain, gaztelaniaz/frantsesez eta ingelesez hitz egiten jakitea.
- B1 gidabaimena eta autoa edukitzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.

### ESKAINTZEN DA

---

- **LANTOKIA:** Eskoriatza
- **ORDUTEGIA:** malgua, lanaldi osoan.
- **SOLDATA:** ibilbide eta garapen profesionalarekin bat datorrena.
- **KONTRATUA:** kontratu mota hautagaiarekin adostuko da.

### HAUTAKETA PROZESUA

---

- Curriculumak jasotzeko **epea maiatzaren 15ean** bukatuko da eta kontratatutako pertsona, printzipioz, ekainean hasiko da lanean.
- Lanposturako pertsonaren aukeraketa Garabideko Zuzendaritza Batzordeak egingo du, lanpostu honetarako ezarrita daukan profilararen egokitasunaren arabera.
- **Bidali curriculumak garabide@garabide.eus** helbidera eta mezuaren izenburuan "Kudeaketa ekonomikorako langilea" erreferentzia adierazi.